

DIRU-ITURRIAK

Bi prezio mota bereizten dira:

-Prezio finkoak: aldagai estatikoen arabera aurredefinituta daudenak.

-Prezio dinamikoak: merkatuaren egoeraren arabera aldatzen direnak.

PREZIO FINKOAK:

-Zerrendako prezioa:

Produktu edo zerbitzu indibidualei jartzen zaien prezio finkoa.

-Ezaugarrien araberako prezioa:

Produktuaren kakitate edo kopuruaren araberako prezioa.

-Merkatu-segmentuaren eta bere ezaugarri berezien araberako prezioa:

Bezeroaren profilaren arabera jartzen den prezioa.

-Bolumenaren araberako prezioa:

Prezioa aldatzen da erositako kantitatearen arabera. Asko erosiz gero, produktu edo zerbitzuaren prezioa merkeagoa da.

PREZIO DINAMIKOAK:

-Negoziazioa edo tratua:

Prezioa negoziatzaileen botere edo trebeziaren menpe dago eta bi parte edo gehiagoren artean adostu egiten da.

-Marjinaren kudeaketa:

Prezioa inbentarioaten eta erosketa egiteko denboraren araberakoa izango da.

-Denbora errealeko merkatua:

Eskaitzan eta eskariaren legearen menpe finkatzen da prezioa.

-Enkanteak:

Prezioa elkarren artean lehiatzen diren eskaintzen emaitza da.

Gure diru iturriei buruz hitzegitean, aktiboen salmentei esker eskuratuko ditugun sarrerei buruz ari gara bakarrik, ez baitugu beste errenta edo lizentziarik. Sarreretan gainera,

produktuaren prezioa Finkoa behar dela izan ondorioztatu dugu, bolumenaren arabera ere handiagotu edo txikiagotuko delarik. Honekin lortu nahi duguna, prezio merkean erosle asko edukitzea da, lehen esan bezala produkzio kostuak urriak izango baitira, merkatuan irabazi egokiak izatea eta lehiakor izatea lortuz.